

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEZAKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea Lezako hiri antolamendurako plan orokorrari eta ingurumen azterketa estrategikoari**

Udalbatzak, 2021eko azaroaren 22an balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Lezako hiri antolamendurako plan orokorrari eta hari dagokion ingurumen azterketa estrategikoari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzarri buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 90.3 artikuluan eta Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 12. artikuluan ezarritakoa betez, jendarean jartzen dira bi agiriak 45 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedienteak aztertu eta egoki jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta horri buruzko iragarkia lurraldean hedapen handiena duen egunkarian argitaratuko da.

Interesdunek udal bulegoetan eta udal web orrian ([www.ayuntamientodeleza.com](http://www.ayuntamientodeleza.com)) dituzte eskuragai espedienteak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzarri buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 85.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eten egiten da edozein onspen, baimen eta lizentzia ematea, bi urtez gehienik ere, xedapen berriek indarreko hirigintza araubidea aldatzea dakarten arloetan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Leza, 2021eko azaroaren 24a

*Alkatea*

**JOSÉ ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA**